



**Arartekoaren 2020R-2195-19 EBAZPENA, 2020ko irailaren 14koa. Horren bidez Gasteizko Udalari gomendatzen zaio berariaz ebazteko hirigintzako ituntze-batzarraren erabaki baten aurka aurkeztu zen gora jotzeko errekurtoa.**

### Aurrekariak

1. Pertsona batek kexa aurkeztu du Arartekoan, Gasteizko Udalak ez diolako erantzun (...) sektoreko (...) ituntze-batzarrak hirigintza-informaziorako sarbidea eskatzeari lotuta eman zuen erantzunaren aurka aurkeztu zuen errekurtoari.

2019ko apirilaren 15ean, kexagileak gora jotzeko errekurtoa aurkeztu zuen, Gasteizko Udalean, ituntze-batzarraren erantzunaren aurka. Informazioa eskuratzeko eskaeraren xedea zen honako hauei buruzko dokumentazioa ematea: (...) sektoreko urbanizazio-proiektua, (...) sektoreko ituntze-batzarrak urbanizazio-obrak egiteko sinatutako kontratua, urbanizazio-obren likidazioa eta (...) sektoreko birpartzelatze-proiektuan sartutako kalte-ordainen balorazioa justifikatzeko dokumentazioa.

Ituntze-batzarrak eskaera ezetsi zuen ebazpen bidez, baina ebazpen horretan soilik azaltzen zen ezin zela informazio-eskaera onartu ituntze-batzarreko jabeen datu ekonomikoak jasotzen zirelako, eta *"la imposibilidad legal de facilitárselos sin su expreso consentimiento por tratarse de datos internos de la Junta de concertación que afectan exclusivamente a los propietarios de la misma"*. Bestalde, izaera publikoa duen hirigintza-dokumentazioari dagokionez, batzarrak azaldu zion Gasteizko Udalera jo behar zuela berriz: *"Institución que realizó la aprobación definitiva de todos los documentos interesados, y además quien realizó la recepción de obras de urbanización"*.

Errekurtsoan Gasteizko Udalari eskatu zion, "berebat" dokumentuaren bidez, dokumentuaren artxiboetan zuen informazioa eskuratu ahal izatea; horren bidez formalizatu zen sektore horretako urbanizazio obren behin betiko harrera.

Kexagileak Arartekora jo zuen berriz, gora jotzeko errekurtoari eta "berebat" dokumentuari erantzuteko epeak igaro arren eskaerari ez ziotelako erantzunik eman.





2. 2019ko azaroaren 4an eta 2019ko azaroaren 27an, Arartekoak informazioa eskatu zion Gasteizko Udalari, batetik, gai horri buruz eta, bestetik, gora jotzeko errekurtsori eta (...) sektorearen (...) urbanizazio-proiektuari lotuta administrazio horretan dauden dokumentuak eskuratzeko eskaerari emandako erantzunari buruz.
3. 2020ko ekainaren 22an, Gasteizko Udaleko Lurraldeko eta Klimaren Aldeko Ekintzako zuzendari nagusiak txosten bat bidali dio Arartekoari. Txostenean honako hau azaltzen da:

*“Atendiendo a su solicitud de información sobre el escrito de queja presentado por D. (...) respecto al expediente con ref. 2195/2019/QC, le comunicamos que con fecha 22 de junio ha sido remitida al interesado la documentación recabada a la Junta de concertación del Sector (...), consistente en copia de:*

*Contrato de adjudicación de las obras de urbanización*

*Liquidación de las mismas.*

*Recepción de obras por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.”*

Kexa hau ikusita, haren planteamendua eta Gasteizko Udalak igorritako informazioa aztertu ondoren, Arartekoari egokia iruditu zaio honako gogoeta hauek helaraztea:

#### Gogoetak:

1. Kexan azaltzen da Gasteizko Udalak ez diola erantzun (...) sektoreko (...) ituntze-batzarrak hirigintza-informaziorako sarbidea eskatzeari lotuta eman zuten erantzunaren aurka aurkeztu zuten gora jotzeko errekurtsori.

Bidalitako informazioan, Gasteizko Udalak jakinarazi du urbanizazio-obren esleipen-kontratuari, obren likidazioari eta obren udal-harrerari buruzkoa dela ituntze-batzarrari bidalitako dokumentazioa, baina informazio horren bidez ez da erantzunik ematen (...) birpartzelazio-proiektuan sartutako kalte-ordainen balorazioari lotuta dagoen dokumentazioari buruz.

Era berean, udal-txostenak ez du aditzera ematen Gasteizko Udalak zer erantzun zion 2019ko apirilaren 15ean aurkeztutako gora jotzeko errekurtsori.





2. Adierazi behar da egindako eskariei eta erantzun eraginkorrari dagokionez, administrazio publikoek, beti, edonola ere, bermatu egin behar dutela herritarrekiko harremanetan gauzatzen dituzten izapideen trazabilitatea, horretarako, dagokion administrazio prozedura erabiliz.

Administrazio prozedura orokorrak ezartzen ditu administrazio jardura administrazio onaren irizpideen arabera antolatzeko, bideratzeko eta fiskalizatzeko kontuan hartu behar diren jarraibideak.

Herritarrek administrazio onerako duten eskubideak berekin dakar aurkezten diren idazkien hartu-agiria jasotzea, dagokion prozedurako ofiziozko bultzada egitea eta azaldutako gaiei eta errekurtsioei arazoizko epean eta moduan erantzutea. Zehazki, administrazio onerako eskubidetik erator daitezkeen printzipioetako bat aipatu behar da.

- Koherentzia eta sustapen printzipioa. Eskariak edo errekurtsioak betetzeko ordenamendu juridikoan *ad hoc* prozedura ezarrita baldin badago, dagokion administrazio prozedura espezifikora bideratu beharko dira. Halaber, administrazioaren funtzionamendua arautzen duten administrazio onaren printzipioek, hala nola antiformalismoarenak, fede onarenak edo konfiantza legitimoarenak, aukera ematen diote administrazioari idazki horiek eskatzaileak eskatutakoaren ondoriozko beste prozedura espezifiko batzuetara bideratzeko. Testuinguru horretan, administrazioak herritarren nahia bideratzen ahalegindu behar du, ordenamendu juridikoak berariaz ezarritako prozedura zehatzetan.
- Hobekuntza eta laguntza printzipioa. Edonola ere, dagokion prozedura sustatu behar denez, beharrezkoa da aintzatestea eskariak berariaz aurkeztu behar direla udalaren erregistroan, eta argi identifikatu behar direla nahiak, administrazio horrek, eskaria dagokion prozeduraren arabera ebatz dezan. Hasteko eskariak legeria espezifikoak eskatutako baldintzak betetzen ez baditu, administrazioak interesatuari gabezia zuzentzeko edo derrigorrezko dokumentuak aurkezteko eskatu beharko dio. Alde horretatik, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan jasota dago zein den eskaria zuzentzeko eta hobetzeko jarraitu beharreko prozedura.



- Arrazionaltasun eta motibazio printzipioa. Aldi berean, administrazioaren erantzunean eskaria edo errekurtsioa onesteko edo ezesteko arrazoiak eman beharko dira. Eskariaren ondorioz akordio edo ebazpen espezifiko bat egon bada, neurri hori ere erantzunean jasoko da. Eskaria oinarrituta dagoela ebazten denean, eskumenak dituen agintaritzak edo organoak jorratu egin beharko du eta guztiz eraginkor izateko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak ezarriko ditu.
- Adostasun eta legezko konfiantza printzipioa. Bidezko konfiantzaren printzipioa aplikatuz, herri-administrazioek bat etorri behar dute beren administrazio-eskumenak baliatuz egindako eskaerekin. Printzipio horrek berekin dakar prozedurari amaiera ematen dioten ebazpenetan interesdunek planteatutako gai guztiei buruzko erabakiak hartu behar izatea. 39/2015 Legearen 88.2 artikulua honako hau dio: *«Interesdunak eskaturik izapidetutako prozeduretan, interesdunak eskatutakoaren harikoa izango da ebazpena, eta ezein kasutan ezin izango du interesdunaren hasierako egoera okerragotu, hargatik eragotzi gabe Administrazioak ofizioz beste prozedura bat hasteko ahala izatea, hala badagokio»*.
- Azkartasun- eta ebazpen-printzipioa. Administrazio jarduketa arrazoizko denboraren barne egin behar da eta administrazioak dituen baliabideak eta bitartekoak erabiliz, arrazoitu gabeko atzerapenak saihestu behar direlarik. Berriazko erantzun bat arrazoizko epean ematearen garrantzia Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan aurreikusita dago baita ere. Horren arabera, berriazko ebazpena emateko betebeharra dago eta hasiera batean, hiru hilabeteren aurretik horren berri eman behar da.
- Berrikuspen eta tutoretza judizial eraginkorreko printzipioa. Esan beharra dago udalaren erantzunak administrazio legerian administrazio ebazpenetarako eskatzen diren baldintzak bete behar dituela. Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, jakinarazpenean, ebazpenaren testu osoa jaso behar da, eta adierazi behar da administrazio-bidetik behin betikoa den ala ez, zein errekurtsio jar daitezkeen, hala badagokio, administrazio-bidean eta auzibidean, zein organoetan eta zein epetan, hargatik eragotzi gabe interesdunek egoki deritzoten beste edozein errekurtsio baliatzeko aukera.



Administrazio onaren printzipio horiek kexan azaldutako kasuetan ere aplikatu behar dira, hau da, pertsona batek gora jotzeko errekurtsua aurkezten duenean Gasteizko Udalean, (...) sektoreko (...) ituntze-batzarraren erabaki baten aurka.

Zehazki, gora jotzeko errekurtsu horri udalak emandako ebazpenak kontuan hartu behar ditu, besteak beste, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 119. eta 121. artikuluetan jasotako preskripzioak, errekurtsua izapidetzeko jarraitu beharreko prozedura eta epeak adierazten baititu. Hala, gora jotzeko errekurtsua berariaz ebatzi behar da, eta ebazpenak bat etorri behar du kexagileak egindako eskaerekin, baina ezin da inola ere larriagotu haren hasierako egoera. Ondorio horietarako, organo eskudunak baietsi edo ezetsi egin beharko ditu bertan adierazitako uziak, edo, bestela, onartu ez direla adierazi beharko du. Ebazpen horren eduki osoa alderdi interesdunei jakinarazi behar zaie, egoki diren errekurtsuak adierazita.

3. Bestalde, Arartekoak 2019ko martxoaren 27ko 2019NI-2225-18 Ebazpenean azaldu zuen ituntze-batzarrek izaera administratiboa dutela (...) sektoreko (...) bizitegi-sektorearen hirigintza-kudeaketan:

*"El artículo 163 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, Suelo y Urbanismo, reconoce que las juntas de concertación disponen de personalidad jurídica propia, plena capacidad de obrar y, asimismo, naturaleza administrativa.*

*Hay que precisar que los ayuntamientos deben garantizar que la actuación de la junta, y de sus miembros, cumpla con el cometido urbanizador encomendado. Para ello, esa administración municipal dispone de facultades para garantizar el cumplimiento de sus obligaciones, según establecen los artículos 181 y siguientes del Reglamento de Gestión Urbanística en relación con el 163 de la Ley 2/2006.*

*Ello tiene consecuencias respecto a la determinación de los mecanismos de control externo de que disponen los ayuntamientos y respecto al carácter de la documentación que elabore esa Junta de concertación en el ejercicio de esas potestades públicas. Así, cabe mencionar la sentencia del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, nº 444/2015, de 22 de octubre de 2015, en la que se señala al respecto que:*



*“La Ley 2/2006 del suelo y urbanismo del País Vasco dice que las juntas de concertación tendrán el carácter de agrupaciones de interés urbanístico, a la sazón, sujetos de ejecución privada del planeamiento cuando el sistema de actuación previsto sea el de concertación que es una de las modalidades de ejecución privada mediante concesión administrativa (artículo 162-1 en relación a los artículos 148 y 159). El carácter o base de constitución privado de las juntas de concertación, vinculado al sistema del mismo nombre y naturaleza no empece a la naturaleza administrativa de esas agrupaciones, proclamado por el artículo 163-1 de la misma Ley (ídem, art. 26-1 en relación al art. 24-2 a del Real Decreto 3288/1978 ) y responde en el ámbito de la legislación urbanística a la atención del sujeto, distinto de la Administración actuante que participa en la ejecución del planeamiento, no en vano se trata de la asociación de los propietarios de los terrenos incluidos en un ámbito de actuación integrada, constituida para la ejecución de una función pública cual es la de ejecución del planeamiento, como es propio de las corporaciones sectoriales de base privada que sin constituir estrictamente Administración Públicas lo son en la medida en que son titulares de funciones de esa naturaleza, atribuidas por la ley o delegadas por la Administración (García de Enterría). Atendida, así, la naturaleza "administrativa" de las juntas de concertación, su personalidad jurídica y relación de dependencia con la Administración local "actuante" y sus funciones ( artículos 163 y concordantes de la Ley 2/2006 del País Vasco y 26-1 del Real Decreto 3288/1978 ), dicha entidad merece la consideración de Administración Pública y, por ende, de poder adjudicador a efectos de la aplicación de la legislación de contratos del sector público, de conformidad con el artículo 3.2 e ) y 3 del TRLCSP, aprobado por RDL 3/2011 . (...) . Tampoco hay que confundir el control interno ejercido por la Administración mediante un solo representante en el órgano rector de la junta (artículo 162-2 de la Ley 2/2006 del País Vasco) con el régimen de control externo que configura la relación de dependencia o vinculación de la junta de concertación respecto de la Administración local. En todo caso, las juntas de compensación, en razón a su carácter de entidades de derecho público encajan en el apartado c) del artículo 3-1 del TRLCSP y no en el apartado h) del mismo precepto, referido al concepto de sector público; amén de su consideración de Administración Pública y poder adjudicador según los apartados del mismo artículo citados ut supra. Y así el contrato de obras del que trae causa el contencioso no puede calificarse de privado, sino de administrativo (artículos 19-1 a y 20-1 del TRLCSP) y para resolver las cuestiones relativas a su cumplimiento o efectos*



*la competencia corresponde a esta Jurisdicción ( artículo 2-b de la Ley Jurisdiccional en relación al artículo 21-1 del TRLCSP”.*

Beraz, 2/2006 Legearen 162.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, ituntze-batzarraren erabakien aurka, interesdunak gora jotzeko errekurtsua aurkez dezake udalean. Hori dela eta, azpimarratu behar da Gasteizko Udalak kontrol-lana egin behar duela ituntze-batzorde batek ez badio erantzuten ahalmen publikoak baliatzean dagoen dokumentazioa eskuratzeko eskaerari.

4. Gauzak horrela, gogora ekarri behar da espediente eta erregistro publikoetan dauden agiriak eskuratzeko eskaerak gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean eta gainerako ordenamendu juridikoan aurreikusitakoaren arabera izapidetu behar direla.

Arartekoaren 2019NI-2225-18 Ebazpenean, 2019ko martxoaren 27koan, Arartekoak Gasteizko Udalarari adierazi zion ofizio bat bidali behar ziola kexagileari, urbanizazio-obrak behin betiko hartzeko espedienteari buruz zegoen informazioarekin. *“Halaber, kexagileak eskatu ondoren, Gasteizko Udalak haren esku jarri behar luke (...) bizitegi-sektorearen (...) hirigintza arloko kudeaketaren inguruan udaleko sail guztietan dauden dokumentu guztien zerrenda. Zerrenda horretan jaso behar luke Gasteizko Udalak, ituntze-batzordearen eskumen publikoak kontrolatzeko bere ahalmenak baliatuz, batzorde horri eska diezaiokeen dokumentazioa.”.*

Kasu honetan, Gasteizko Udaleko Lurraldeko eta Klimaren Aldeko Ekintzako zuzendari nagusiak igorritako komunikazioak ezin du ordeztu ituntze-batzarraren erabakiarekin batera aurkeztutako gora jotzeko errekurtsua berariaz ebazteko udal-organo eskudunaren betebeharra, baina komunikazio horrek aditzera ematen du ituntze-batzarrak jasotako informazioa bidali dela.

Hori guztia dela eta, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Arartekoak gomendio hau egin nahi du:

#### Gomendia

Arartekoak Gasteizko Udalarari gomendatzen dio berariaz ebatz dezala 2019ko apirilaren 15ean (...) sektoreko (...) ituntze-batzarraren erantzunaren aurka aurkeztutako gora jotzeko errekurtsua, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean jasotakoa betez.

